



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO IKASLEEN ESKOLA-GARRAIOARI –HEZKUNTZA ARLOAN ESKUMENA DUEN SAILAK FINANTZATUTAKOARI– BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 16. artikuluan xedatzen denari jarraikiz, Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza osoa, hots, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan; betiere honako hauen aurka egin gabe: Konstituzioaren 27. artikulua eta hura garatzen duten lege organikoak, Konstituzioaren 149.1.30. artikulua Estatuari esleitutako ahalmenak, eta goi-ikuskaritza. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio hezkuntza-zerbitzuen arloko eskumena; besteak beste, eskola-garraioko zerbitzu osagarria. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren arlokoak dira funts propioen bidezko laguntza eta beken erregimena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan zehazten denez, honako hauek dira hezkuntza-sistemaren printzipioak: ikasle guztientzako hezkuntza kalitatekoa, haien zirkunstantziak eta egoera edozein direlarik ere; ekitatea, hezkuntzaren bidez pertsonalitatea osoki garatzea bermatuko duena; hezkuntza-inklusioa; eskubideetan eta aukeretan berdintasuna, edozein diskriminazio gainditzeko laguntzeko, eta hezkuntzarako sarbide unibertsala, desberdintasun pertsonalak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak konpentsatzeko, arreta berezia eskainiaz desgaitasunen ondoriozkoei.

Pertsonak kalitatezko hezkuntza –eta, zenbait irakaskuntzatan, doakoa– jasotzeko duten eskubideen testuinguru horretan, eta, aipatutako arau eta printzipioen arabera pertsonak hezkuntzarako eskubidea baliatzeko baldintzak ezartzeko hezkuntza-administrazioek duten betebeharraren testuinguru horretan, eskola-garraioa eskubide horien egikaritza baldintzatzen duen faktore bat da, eta, beraz, hezkuntza-administrazioak egoera eta irakaskuntza jakin batzuetan bere gain hartu behar dituen betebeharren artean dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioa maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretuak arautzen du gaur egun, azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuak eta dekretu hori bigarren aldiz aldatzen duen irailaren 28ko 217/2021 Dekretuak egindako aldaketekin.

Hala ere, Hezkuntza Sailak beharrezkotzat jotzen du eskola-garraioko zerbitzuaren araudian beste aldaketa bat egitea, honako helburu hauek betetzeko:

Lehenik eta behin, bere aplikazio-eremuan sartu nahi dira Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak, garraio publiko erregularren eskaintza eskasa dela-eta etxetik ikastetxera joateko zailtasun handiak dituzten eremuetan bizi diren ikasleen garraioan lagunduz, betiere arauan ezartzen diren baldintza eta betekizunen arabera.

Era berean, arauak egokitu nahi dira Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen onarpena, esleipena eta matrikula arautzen dituen prozedurara.

Bestalde, ezinbestekoa da berrikustea garraio-eskubidea duten ikasleek eskola-jantokian kuota murriztua lortzeko duten eskubidea, honako printzipio hauek betetze



aldera: ezarritako helburuak betetzean eraginkortasunez aritzea; ekonomia, nahikotasuna eta baliabideak helburu instituzionaletara zorrotz egokitzea; baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean efizientziaz jokatzeko (baliabide horiek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean deskribatuta daude). Gaur egun 69/2015 Dekretuak 4. artikuluan xedatzen duenez, eskola-garraiorako eskubideak jantokietan kuota murrizturako eskubidea izatea ere badakar, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2000ko martxoaren 22ko Aginduak xedatutako moduan; izan ere, agindu horren bitartez, arautu egiten dira zuzeneko kudeaketako eskola-jantokiak. Sail honek azken urteotan ikusi du ikasleen ehuneko handi batek eskola-garraiorako eskubidea eskatzen duela, jantokiko kuota murriztua lortzeko helburu bakarrarekin, garraioa erabili gabe, eskubide horren abusuzko erabilera eraginez. Jokabide horrek, praktikan, erabiltzen ez den baliabide-bolumen nabarmena ikasleen eskura jartzea eragin du.

Era berean, egiaztatuta geratu da kuota murriztuak desberdintasunak eta gatazkak sortzen dituela familien artean. Kuota hori lortzeko, ikasleek garraio-eskubidearen baldintzak bete behar dituzte; besteak beste, gutxieneko distantzia bat egon behar da ikastetxearen eta ikaslearen etxebizitzaren artean, tresna informatiko bat erabiliz neurtuta. Bada, askotan, kale berean bizi diren familien artean, batzuek distantziaren baldintza betetzen dute, eta, ondorioz, kuota murriztua lortzen dute eskola-jantokian; beste familia batzuek, berriz, metro gutxira bizi diren arren, ez dute distantziaren baldintza hori betetzen. Azaldu den bezala, egoera horrek gatazkak eta desadostasunak eragiten ditu eraginpeko pertsonen artean, argudiatzen baitute desberdintasuna sortzen dela aldameneko familiek kuota murriztua badute eta beraiek ez, are gehiago onuradunek eskola-garraioa erabiltzen ez badute.

Azkenik, indarrean dagoen Dekretuaren 5. artikulua, eskola-garraioaz baliatzeko eskatzen diren baldintzak arautzean, ikastetxea hezkuntza-administrazioak esleitu izanaren salbuespena zehazten du. Hala ere, sail honek honako berezitasun hau ohartarazi du: batzuetan, ikasleak ezin bazaio plazarik esleitu bere bizilekutik hurbilen dagoen ikastetxe publikoan, bertan lekuri ez dagoelako, eskolatze berantiarra dagoelako edo justifikatutako beste arrazoiren bat dagoelako, gurasoek edo ordezkariak hezkuntza-administrazioari eskatzen diote itunpeko ikastetxe jakin batean matrikulatzeko. Horrek paradoxa bat eragiten du: hezkuntza-administrazioak esleitu edo izendatu du ikastetxea, eta, horrekin batera, garraiorako eskubidea sortu. Hala ere, erabaki hori ez da oinarritzen hezkuntza-administrazioak aplikatutako irizpide objektiboetan, baizik eta interesdunek aurkeztutako eskaeran. Halako arazorik ez gertatzeko, beharrezkoa da egoera horietan aplikatu beharreko irizpide objektibo bat ezartzea.

Hori guztia kontuan hartuta, dekretu berri bat argitaratzea erabaki da, gaur egun indarrean dagoen araudian oinarrituta. Dekretu-proiektu honen xedea da eskola-garraioari buruzko dekretu berri bat egitea eta onartzea, zerbitzu osagarri hori berdintasun- eta ekitate-printzipioen arabera arautuz, eskuratzeko garaian, eta zerbitzua erabiltzen duten ikasleei, haien familiei eta ikastetxeei ahalik eta segurtasun juridiko handiena emanez.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrek egiteko Prozedurarenak, xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen du, eta, 12.1 artikuluan xedatzen duenez, xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da prozedura. Bestalde, xedapen horren 13.1 artikulua ezartzen ditu prozedura hasteko aginduaren betekizunak eta gutxieneko edukia.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari buruzko dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzea. Hezkuntza arloan eskumena duen sailak finantzatzeko du proiektu hori, eta honako atal hauetan xedatutakoari egokituko zaio:

a) Xedea eta helburua.

Proiektatutako xedapenaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioa, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak finantzatzutakoa, arautzea da, maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretua eta haren ondorengo aldaketak indargabetuta.

b) Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 16. artikulua hau xedatzen du: *“Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa betetze aldera, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren eskumenekoa da irakaskuntza bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, molde eta espezialitate orotan, Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoei kalterik egin gabe, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe eta hori betearazteko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari kalterik egin gabe.”* Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio hezkuntza-zerbitzuen arloko eskumena; besteak beste, eskola-garraioa zerbitzu osagarria.

Bestalde, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aplikatu behar da. Lege horrek, besteak beste, hezkuntza-sistemaren printzipioak, pertsona guztiek oinarritzeko hezkuntza egiteko betebeharra, hezkuntza horren doakotasuna eta landa-eremuko aukera-berdintasuna arautzen ditu.

Bideragarritasun materialari dagokionez, gogora ekarri behar da Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren Hitzaurrean xedatutakoa: *“Egungo gizarteek garrantzi handia ematen diote gazteek jasotzen duten hezkuntzari, ziur baitaude ongizatea (bakoitzarena zein kolektiboa) hari lotuta dagoela. Hezkuntza bide egokiena da gazteen nortasuna eraikitze, gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko, norberaren identitatea osatzeko eta errealitatearen ulermena taxutzeko, hori guztia ezagutzazko dimentsioa, afektiboa eta axiologikoa bateratuta. Kultura eta haren euskarri diren jakintzen eta balioen ondarea transmititzeko (eta, aldi berean, berritzeko), eskaintzen dituen aberastasun-iturrietatik ahalik eta aukera gehien lortzeko, elkarbizitza demokratikoa eta desberdintasun indibidualen errespetua sustatzeko, elkartasuna bultzatzeko eta diskriminazioa saihesteko bidea da hezkuntza gizartearentzat, eta beharrezkoa den gizarte-kohesioa lortzea du funtsezko helburu. Horrez gain, gizarte aurreratuak, dinamikoak eta zuzenak osatzeko ezinbestekoa den herritartasun demokratikoa, arduratsua, libre eta kritikoa bermatzeko bide egokiena da. Hori dela-eta, hezkuntza on bat herrialde baten eta bertako herritarren aberastasun handiena eta baliabide nagusia da.”* Zalantzarik gabe, eskola-garraioa estu-estu lotuta dago hezkuntzarako eskubidearekin, betetzen dela bermatzen laguntzen baitu. Egungo gizartean, eskola-garraioa hezkuntzarako eskubidea bermatzen duen zerbitzu osagarria da.

c) Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Arau honek indargabetu egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari –garraioaren arloan eskumenak dituen sailak finantzatutakoari– buruzko maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretua, bai eta ondorengo aldaketak ere.

d) Aurrekontuetan izango duen eragina.

Proposatutako lau aldatetarik bik eragin zuzena izango dute Administrazio Publikoaren aurrekontuan. Hauek dira: dekretuaren aplikazio-eremuan Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak sartzea, eta kudeaketa zuzeneko eskola-jantokietan kuota murriztua lortzeko eskubidea berrikustea. Eragin hori dagokion memoria ekonomikoan aztertuko da.

e) Gaiaren arabera dagozkion izapideak eta txostenak.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1 artikuluan e) letran xedatutakoari jarraikiz, hasteko aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaiaren eta edukiaren arabera egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak. Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten da zer izapide eta txosten behar diren, printzipioz, aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko:

1.- Hasteko agindua egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da. Halaber, agindu hau Legesarea ezagutza-esparru partekatuan argitaratuko da.

2.- Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Behin testu arauemailea aldeztu aurretik onartuta, Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da.

3.- Generoaren arabeko eraginari buruzko txostena.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren arabeko eraginari buruzko txostena idatziko da.

4.- Arau-eragina aztertzeke memoria.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikulua ezartzen duenez, espedientea izapidetzeko eskumena duen organoak arau-eragina aztertzeke memoria bat egingo du nahitaez, aipatutako xedapenean aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin.

5.- Txosten juridikoa.

Eskola-garraioaren eta hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen artean dagoen harremana dela eta, beharrezkotzat jotzen da txosten juridiko bat egitea, Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

6.- Memoria ekonomikoa.

Memoria ekonomiko bat egingo da, aurreikusitako eragin ekonomikoa zehazteko.

7.- Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena.

Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa da txosten hau egitea.

8.- Aginduzko txostenak eta irizpenak.

Funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira:

- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak 2. artikuluan agindutakoari jarraituz, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzeko.
- Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren txostena, proiektu honetan planteatutako erregulazioak zuzendaritza horri eragin baitiezaioke.
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzaren txostena, projektaturiko arauak zuzendaritza horretan eragina izan dezakeelako.
- Txostena, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailarena, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundietan garraioaren arloan eskumena duten sailena, pertsonen errepide bidezko garraioari buruzko araudia formalki betetzen dela bermatzeko.

16. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten horiek guztiak aldi berean eta hilabeteko epe erkidean egingo dira, aurretiazko onarpena duen xedapenaren testua Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

10. artikulua.- Nahitaezko eta funtsezkoak diren txosten eta irizpenak.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapidetan arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-arloko kontrolari buruzko txostena.
- Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena; izan ere, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 14. artikulua arabera, kontsulta egin behar zaio, nahitaez.

11.- Amaierako espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Amaierako espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikulua 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

12.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

Espedientea osorik izapidetu ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da, eta dokumentazio bera bidaliko da Eusko Legebiltzarrera, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eskatutakoaren arabera.

13.- Gardentasuna.

Dekretu-proiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

14.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Dekretu-proiektua egiteko prozedura amaituta, Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu beharko du, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik adierazgarrien aurretiazko identifikazioa.

Xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleengan izango du eragina.

g) Itzulpenerako edo idazketa elebidunerako teknika.

Dekretu-proiektua ele bitan idatziko da, entzunaldia baino lehen, eta forma elebidun hori erabiliko da nahitaezko txostenak eta irizpenak eskatzeko, hala xedatzen baitu Lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioak.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen (10/1982 Legea, azaroaren 24koa) 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzuliko ditu testuak, halaxe xedatzen baitute 6/2022 Legearen 27.3 artikulua eta apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak, EAEko Administrazio Orokorreko eta Erakunde Autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematekoak.

h) Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea.

Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakian xedatutakoa betez (lehenengoak xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapideak egiteko jarraibideak onartzen ditu, eta bigarrenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen ditu).

Bigarrena.- Ekonomia Kudeatzeko Zuzendaritza prozedura izapidetzeko arduradun izendatzea.

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarea lankidetzagunean jakinaraztea, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz,



JOKIN BILDARRATZ SORRON
HEZKUNTZAKO SAILBURUA